



Zumaia Udalak

*enskar
txanpa*

OHIKO GALDERA-ERANTZUNAK

1. Abizena nahi dudan moduan jar dezaket? Mujika nahi badut, badago aukerarik?

Epailearen irizpidea da. Normalean Euskaltzaindiaren irizpideari jarraitzen zaio. Euskaltzaindiaren liburuan Muxika agertzen da, baina zenbait kasutan beste era batzuk onartu izan dira. Hala ere, abizen-aldaketa gisa izapidetu daiteke aldaketa eta, kasu horretan, Erregistroen eta Notarioen Zuzendaritza Nagusiak erabakitzen du aldaketa onartu edo ezestea.

2. Gurasoak aldatuta, seme-alabena automatikoki aldatzen da?

18 urtez azpikoetan bai. 18 urtez gorakoetan, Bake Epaitegira joan eta adierazi egin behar dute haiek ere aldatu nahi dutela, baina ez dute tramitazio guztia egin beharrik.

3. Anai-arreba guztiak aldatu behar dute derrigorrez?

18 urtez azpikoek bai. 18 urtez gorakoetan bakoitzak erabakitzen du.

4. Aldatuz gero, nora transmititzen da aldaketa hori? Gero zer pauso eman behar dira?

Epaitegiak, ofizioz, toki hauetara bidaltzen du: Udalera, Hauteskunde Erroldara, Polizia Zuzendaritzara... Hala ere, gero NANA berritzeko txanda hartu eta gero "hitzez hitzeko jaiotza agiria" eskatu behar da dagokion erregistro edo epaitegian, NANA berritzeko dela zehaztuta.

5. Eskatzaileak lehengo grafiarekin dauzkan agiriak berriz egin behar dira? (adib. unibertsitateko titulu bat...)

Jaiotza, ezkontza eta seme-alaben jaiotza-agirietan aldaketa epaitegietan bertan bideratzen da, ofizioz, herentzietan arazorik ez izateko. Gainerako kasuetan bakoitzak ikusi behar du. Berez, gomendagarria da ahal den toki eta agiri gehienetan aldaketa egitea.

6. Zenbat denbora irauten du prozesuak?

Eskatzailea jaio zen barruti judizialeko buruko Erregistro Zibilak erabakitzen du abizen-aldaketa. Eskaera egiten den herrian jaiotakoa izanez gero, nahiko epe motzean izan liteke. Beste nonbait jaioa izanda ere, normalean 3-4 hilabeteetan tramitatzen da.

7. Doan da?

Bai.

8. Erdal abizena jar daiteke euskal grafiaz, adibidez Kastaños?

Epailearen baitan geratzen da. Hasiera batean, euskal abizenen kasuan, Euskaltzaindiaren Deitura-izendegiari jarraitzen zaio. Zalantzarik izanez gero, onena Euskaltzaindian galdetzea da.

9. Izenaren grafia ere alda dezaket?

Bai. Prozedura bera da eta kasu honetan ere. Euskaltzaindiak finkatutako irizpideei jarraitzen zaie.